



BARREN
TOKIKOM



Kirolari gorazarre

Osasun gida

**aldaz**
horts klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 271/12
**ainhoa**
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku
eder
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Erparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 173/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

Osasun gida

Badatoz santanak eta sanbartolomeak!

BARRENen publizitatea jartzeko:

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



BARREN



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Egon, izan, bizi!

Sortzen zaidan hausnarketa da: lehen haurtzaroan ez badiugu prestatzen kontestu ezberdinetara egokitzen eta haur ezberdinekin elkarbizitzen, nola egingo diete aurre bigarren hezkuntzako erronei? Nola ikasketak aukeratzeari eta bere bidea ekiteari?

Aspaldi irakurria nuen guraso izatea erabakitzean garrantzitsua zela izaki bat munduratzearen kontzeptua izatea presente. Neure belaunaldian unibertsitatea helmuga genuenok etxetik urruntzea naturalizat genuen, baina orain geroz eta gazte gehiago ikusten ditut kabia utzi ezinda; oso prestatuak daude, hizkuntzak ikasi dituzte txikitatik, bidaiatutakoak dira

eta asko irakurritakoak, baina euren burua ez dute etxetik 300 kilometrotara ikasten irudikatzen. Haur hauek 6 urte egiterako ikasia zuten patinetan, bizikletan, zaldian eta kirol ezberdinetan ibiltzen eta urtero joango ziren udalekuek eta esperientzia ezberdinetara; honela ematen du haur autonomoak sortu ditugula, baina zerbait berrikusi beharrean gaude euren kabuz pentsatzen eta erabakiak hartzen ikasi ez badute. Ekintza guzti hauek haurren behar eta desietara egokitu dira ala geure behar eta ikuspegira? Ez al gara geure bizi erritmoa haurrei txertatzen?

Gelditu, egon, begiratu, sentitu, geure buruaren kontzientzia hartu eta isiltasunaz gozatu ingurukoekin. Hauxe oporretarako nire desioa guztiontzat!

Haurren babesak gatazkak ekiditzeko modura ulertzen badugu, zein nolako subjektuak sortzen ari gara? Guk geuk geure erosotasun burbuila sortzen dugun modura gustura bizitzeko, ezagutzen ditugunekin bizitza eginaz.

“Gelditu, egon, begiratu, sentitu, geure buruaren kontzientzia hartu eta isiltasunaz gozatu ingurukoekin. Hauxe oporretarako nire desioa guztiontzat”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UROLA
AUZUBARRAK

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO
2000

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MENDAROKO AKELARREA

Pasa den igande gauean Mendaron bizi izan genuena majia hitzez definitu daiteke. San Joan bezperako akelarrea ospatu genuen, eta suaren berotasuna gutxi ez balitz, jendearen berotasun ikaragarria sentitu genuen. Bertara hurbildu zen jendearen hitz politek herriaren alde halako ekintzak egiten jarraitzeko gogoa indartzen digu, dudarik gabe.

Idatzi hau lagun horiei eta bereziki Akelarrean parte hartu zuten 100 lagunei zuzenduta doa. Doala hemendik gure eskerrik beroena guztientzat! 100 pertsona horien lan, entsegu-ordu, inplikazio eta ilusiorik gabe ez litzateke posible izango ikuskizun hau!

Eskerrik asko bihotzez, Ameikutz Musika eskolari (Artari bereziki), Mendaroko euskal dantza taldekoei, Ludotekako haurren gurasoei, Gazte Asanbladakoei, Migel Beraza eta Gaizka Urangari, Ludotekako haurrak prestatzen ibili den June Fernandez Zabalarri, Gaztelekuko gazteei, Aitzol Ezenarrori, txalapartariei (Andoni eta Xeber), Asier Olaberri (Akerbeltz), Buruarintxo taldeari, udal txeko Joxeri, Mikel Fernandezi... eta agian ahazten ari zaigun beste norbait horri ere bai (barkatu hala bada). Eskerrik asko, Mendaro!

Mendaroko Udal Ludoteka eta Gaztelekuko arduradunak

► ESKERTZA

Haizea Emakume Taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu Alcorta Forging enpresako langile emakumeei martxoaren 8ko greba eguneko dirua gure proiektu feministara bideratzeagatik, eta eskerrik asko, era berean, lankide emakumeen ekimena babestu duten gizonen. Gure eskerrik beroena zuen diru-ekarpenarekin gure lana babesteagatik, eta greba egunean planto egin genuen emakume

garen aldetik, gure aitortza pauso bat aurrera emateagatik eta grebak eragindako diru-galera horrenbesteko koheren-tziarekin zeuen gain hartzeagatik.

Borroka honetan elkarrekin egotea motibazio handia da guztiontzat eta poliki-poliki gizarte honek kontzientzia handiagoa hartuko duen itxaropena indartzen digu. Zuen diru-ekarpena zertarako erabiliko dugun aztertu ostean ondorioztatu dugu diru hori gure elkartearen gastuak (ez direla gutxi) baino zerbait gehiagorako erabili behar genuela. Iruditu zaigu inbertsiorik onena Uluka Batukarako instrumentu berri bat erostea dela eta hala hala egingo dugula esan nahi dizuegu.

Zergatik? Bada, arrazoi simple eta emotibo bategatik: Uluka batukada feministaren helburua ahotsik ez dutenen ahotsa izatea delako. Bidean gelditu diren emakume guztien alde borrokan jarraitu nahi dugu, eta zuen keinu hau modu honetan materializatuko dugu, eraso matxistak salatzerako kalera irteten garen aldiro zuen ahotsa eta zuen instrumentuarena ere gurekin direla jakin dezazuen.

Ez dugu egiteko modu hoberik topatzen. Hemen gaudela erakutsi nahi dugu, elkarrekin gaudela eta elkar babesten dugula, zuek egin duzuen bezala.

Eskerrik asko bihotzez

Haizea Emakume Taldea

► UR PARKEA DELA-ETA

Mintxetako igerilekuen egoera lotsagarria da. Uda denboraldia hasi da, igerilekuak ireki dituzte eta Mintxeta obretan dago. Hasieran esan zuten uda denboraldia hasterako ur parkea amaituta egongo zela, baina obrak beranduegi hasi zituzten. Bistakoa zen ez zituztela amaituko igerilekuak irekitze-

rako. Hori horrela izanda, ez al zen hobe denboraldia amaitzean egitea obrak? Igerilekuko erabiltzaileok jasan behar ditugu orain obren kalteak: zarrata, hautsa, arriskua... Orain arte ere bizi izan gara ur parkerik gabe! Obrak bertan behera uztea eskatzen dugu. Datoren urtean ere izango dugu ur parkeaz gozatzeko aukera.

N.B.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datoren eskutitzik argitaratuko.



► Hasi dira udalekuak!

Udalak (Zehar, Heziketa eta Programak elkarteak) eta Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika egitasmoak elkarlanean antolatu dute aurten Elgoibarko aisia eskaintza. Mendaron, bestalde, Udalak antolatu ditu udalekuak eta Atxutxiamaikak kudeatuko ditu. Ia 400 ume arituko dira Elgoibarren, 46 hezitzaileekin, eta Mendaron, berriz, 55 umek eman dute izena, eta sei hezitzaile izango dituzte.

Astehenean hasi ziren udalekuak, eta uztailaren 19ra bitartean hainbat jarduera izango dituzte umek. 2 eta 12 urteko umeentzako eskaintza antolatu dute, eta adin tarte bakoitzari bere

neurrirako jarduerak prestatu dizkiete. Goiz pasak egingo dituzte, tailerrak, ur jolasak, eskulanak... Denetarik izango dute umek, aisialdiaz gozatzeko.

Elgoibarko aisia eskaintza, baina, harago doa, eta nerabeentzako programazioa ere prestatu du Gaztelekuak. 13 eta 17 urte bitarteko nerabeentzako eskaintza egin dute, eta besteak beste, ondorengo ekintzak egingo dituzte: scape room, egun pasak, egonaldia, kamisetak egiteko tailerrak... Aurten ere, Tamariten (Tarragona) astebeteko egonaldia egingo dute, eta 40 bat lagun daude izena emanda.



Viento Sur tabernak irabazi du Pintxo lehiaketa bigarren urtez jarraian, eta herritarren gustukoena Mendi Bidekoa izan da

Hogeita hiru tabernak hartu dute parte aurtengo pintxo lehiaketan, eta Viento Sur tabernako pintxoak jaso du epaimahaiaren saria, bigarren urtez jarraian. Tantaka tabernako pintxoak izan da bigarren sariduna, eta herritarren gustukoena, bestalde, Mendibide tabernako pintxoak izan da. Guztira, 5.402 boto-xartel eman dituzte herritarrek, eta parte-hartzeaz balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Ane Beitia alkateak esan du jende asko ibili dela tabernetan pintxo lehiaketak iraun duen egunetan, eta parte-hartzaileen inplikazioa eta konpromisoa nabarmendu ditu. Mireia Alonso epaimahaiko kideak, pintxoaren kalitate handia nabarmendu du, eta eskerrak eman dizkie tabernari guztiei egindako la-



nagatik. Pilon tabernari aipamen berezia egin dio, tabernak 25 urte bete dituelako, eta gainera, pintxoaren prestaketan familia guztiak parte hartu duelako. Pintxoak zerbitzatzeko ontzia birziklagarria zela nabarmendu dute, eta etxeko alabak di-

seinaturikoa. Zorionak eman dizkie epaimahakide guztien izenean.

Botoa eman dutenen artean, Belau-tegi jatetxean bi lagunentzako menua zozketatu dute, eta Francisco Garcia Garcia izan da sariduna.

Andrea Arriolak batzarkide kargua hartu du Gipuzkoako Batzar Nagusietan



Joan zen astean eratu zituzten Batzar Nagusiak, eta batzarkideek kargua hartu zuten, tartean, Andrea Arriola elgoibartarrak. Elgoibarko Udalean EAJ-PNV alderdiko zinegotzia izateaz gainera, Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide ere izango da, beraz, hurrengo legealdian. Mahaia eta Batzar Nagusietako lehendakaria aukeratzeko bozketak ere egin zituzten XI. agintaldia abian jartzeko bilkuran. Xabier Ezeizabarrena jeltzalea aukeratu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente, EAJren, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin. Boto zuria eman zuten EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek. Batzar Nagusietan 51 ordezkari daude; hogeitazpazpi EH Bildukoak, bederatziz PSE-EEkoak, lau Elkarrekin Podemosekoak eta bakarra, PPkoa.

Robotika tailerrean izena emateko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak

Datorren ikasturtean ere robotika tailerra jarriko du martxan Elgoibarko Udalak, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Tailer hauetan, 7 eta 10 urte arteko haurrek hartu dezakete parte. Eskolak barixakuetan izango dira IMHn, 17:00etatik 19:00etara, eta ikasle bakoitzak hilean 36 euro ordaindu beharko ditu (Elgoibarkoak ez direnek, 66 euro). Udalaren helburua industria sustatzea da, teknologia sektorerako profesionalak prestatuz. Doplay enpresarekin elkarlanean antolatu dute tailerra, eta modu dibertigarrian landuko dituzte gaiak. Robotak diseinatzeko, eraikitzeko eta programatzeko, bideojokoak sortzeko eta asmakuntza teknologikoak garatzeko teknikak landuko dituzte, besteak beste. Urriaren 4an hasiko da ikasturtea. Interesatuak <http://bit.ly/robotikaelgoibar> helbidean eman dezakete izena, irailaren 30era arte.

Jai Alaiko Jesus Mari Arrieta omendu dute Mauxitxa txarangakoek

Mauxitxa Txarangak joan zen astean aurkeztu zuen 50. urteurrena ospatzeko prestatu duten egitaraua, eta ekitaldiaren amaieran, ezusteko omenaldia egin zioten Jai Alai tabernako Jesus Mari Arrietari, txarangak beste urte bete dituelako berak tabernan lanean. Mauxitxa txaranga sortu zuten urte berean, 1970. urtean, hasi zen lanean Jesus Mari Arrieta Jai-Alai tabernan, 11 urterekin. Mauxitxak Txiki egunean egin dituen kalejira guztiak bizi izan ditu gertutik, Errosario kalearen amaieran dagoelako Jai-Alai, leku estrategikoan. "Beti portatu da primeran gurekin eta opari txiki bat egin nahi izan diogu biok 50 urte beteko ditugula-eta", azaldu dute Mauxitxatik. Urdaiazpiko bat eta kamiseta bat oparitu zizkioten.



Uztailaren 14ra arte proposatu daitezke hautagaiak Gure Balioak sarierarako

Gure Balioak Sariaren X. edizioa abian da. Debegesa eskualdeko garapen agentziak sustatu eta antolatzen du urtero, Debabarreneko eskualdean giza balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo entitateen jarduna publikoki aitortzeko asmoz. Sariduna hautatzeko proposamenak bidaltzeko epea uztailaren 14an amaituko da. Debabarreneko herritar orok izango du aukera nahi duen hautagaia proposatzeko, baita erakundeek, enpresek eta gizataldeek ere. Azken bi edizioetako irabazleak Julen Zabaleta eta Felix Etxeberria elgoibartarrak izan dira. Informazio gehiago nahi duenak 943 82 01 10 telefonora deitu edo komunikazioa@debegesa.eus helbidera idatzi dezake.

Eguneko Zentroko kideek Loiolara egin dute irteera



Eguneko zentroko lagunek Loiolara egin zuten irteera joan zen barixakuan. Santutegia bisitatu zuten lehenengo, eta gero, hango jatetxe batean bazkaldu zuten. Eguna primeran pasatu zutela esan dute arduradunek.

Nuala taldekoek piraguismo ikastaroa egin dute



Nuala taldeko lagunek piraguismo ikastaroa egin dute Orion, Lorena Paredes profesionalarekin. Domekan bukatu zuten ikastaroa, eta elkarteko kideek esan dutenez esperientzia oso ona izan da, errepikatzeko modukoa.

lazko udan hasi zen Hiart Compañonen (Deba, 1977) amesgaiztoa. Nekatuta eta ondoezik sentitzen zen, eta medikuarengana joan zen. Gripea izan zitekeela eta antibiotikoak errezetatu zizkieten, baina botika hartuta ere, ez zuen hobekuntza handirik igarri. Hezurretako mina gehitu zitzaion bere ondoezari, eta medikuak analisiak egin zizkion. Donostiatik deitu zioten hurrengo egunean, zerbait ez zegoela ondo eta lehenbailehen joateko esanez. Leuzemia zeukala esan zioten. Urriaren 10a zen. Mundua behera etorri zitzaion une hartan, baina zortzi hilabete pasatu dira ordutik eta tunelaren amaieran argia ikusten hasi da. Hezur-muin transplantea egin diote, eta momentuz, emaitzak onak dira. Eskerrak eman nahi dizkie bere deiarri erantzunez hezur-muin emaille egin diren herritar guztiei.

- AINHOA ANDONEGI -



“Ez nuen uste herria horrela mugituko zenik; hunkituta nago”

► HIART COMPAÑON

◆ lazko oporretan hasi zen zure amesgaiztoa. Nola gogoratzten duzu hasiera hura?

Cadizen geunden oporretan, abuztua zen, eta gorpuzkera arraroa igartzen nuen. Tentsioa baxu neukan, nekea igartzen nuen, baina beroaren eragina izango zela uste nuen. Etxera itzuli ginenean, baina, egoera ez zen hobetu. Sukarra igotzen zitzaidan egun batzuetan, korrika egitera irteten nintzen eta ezin nuen... Medikarengana jo nuen. Ordezko sendagile bat zegoen, eta gripea izan zitekeela esan zidan. Antibiotikoak eman zizkidan hiru egunetan hartzeko, eta hasieran ematen zuen sendatu nintzela, baina sukarra itzuli zen, pisua galtzen hasi nintzen, eta egun batzuetara hezurretako mina sentitzen hasi nintzen. Min arraroa zen, eta berriz joan nintzen medikuarengana. Orduan nire betiko medikua zegoen, eta pneumoniaren itxura hartu zion. Plaka eta analisiak egitera bidali ninduen. Hurrengo egunean deitu zidaten Donostiatik, analisisetan zerbait ez zegoela ondo esanez, eta joateko.

◆ Nola eman zizuten gaixotasunaren berri?

Donostiako kontsultan bertan azaldu zidaten dena argi eta garbi. Leuzemia neukala esan zidaten, baina proba gehiago egin behar zizkidatela jakiteko zein leuzemia mota zen. Kimioterapia

tratamendua berehala hasi behar nuela esan zidaten, eta kontsultara joan nintzenean bertan ingresatu ninduten. Gaixotasunak fase desberdinak dituela azaldu zidaten, eta azken fasean hezur-muin transplantea beharko nuela esan zidaten.

◆ Nola hartu zenuen?

‘Baina nondik etorri zait hau niri?’, pentsatu nuen. ‘Kirola egiten dut, elikadura ere zaintzen dut, eta hau?’. Ezin nuen sinistu. Nire familiar denak zahartzaroan hil dira, ez daukagu horrelako arreakaririk, eta ez nuen ulertzen. Baina gaixotasuna ez da genetikoa. Nire kasuan, gen batek mutazio bat izan zuen, eta horren ondorioz, globulu txuriak ugartu zitzaizkidan. Edozeini gertatu ahal zaio, baina ez nuen sinisten gertatzen ari zena egia zela.

◆ Heriotzaren mamua ikusi zenuen?

Berehala, gainera. Leuzemia hitza entzuteaz bat, hil egin behar nuela pentsatu nuen, eta gainera, laster hilko nintzela. Zelula txarren portzentaje oso altua neukan, eta sendagileek esaten zidaten arren portzentaje horri garrantzirik ez emateko, nik ezin nuen hori burutik kendu. Beldurtu egin nintzen. Medikuek lasaitu ninduten, esanez gorputz bakoitzak desberdin erantzuten duela gaixotasunaren aurrean, eta lasai hartzeko. Transplantearen fasera iritsi aurretik beste bi fase gainditu behar nituela esan zidaten, eta

ordura arte denbora zegoela esanez lasaitu ninduten. Baina heriotzaren mamu hori ez da erraz uxatzen, eta oraindik ere bueltaka dabil nire buruan. Ez naiz horretan pentsatzen bizi, baina hor dago.

♦ **Kontsultara joan eta ospitalean geratu behar izan zenuen, tratamendua berehala hasteko.**

Bai. Lehenengo proba batzuk egin zizkidaten, gaixotasunari abizenak jartzeko: Leuzemia linfoblastica Philadelphia da nik daukadana. Hilabete inguru egon nintzen ingresatuta lehenengo fasean, eta tarte batean isolatuta, gainera. Kimioterapia sesio oso gogorrek eman zizkidaten, eta defentsa gabe geratu nintzen. Bisi-ta bakarra uzten zidaten, oso arriskutsua zelako kanpoko gaixotasunen bat harrapatzea. Egoera horretan katarrorik txikiena ere izugarri konplikatu daiteke, eta ez da komeni. Lehenengo fasean minbizia ahalik eta gehien garbitu behar da kimioterapiarekin. Luzea eta gogorra izan zen, baina emaitza onak izan nituen, eta pozik itzuli nintzen etxera. Bigarren fasea eramangarriagoa izan zen, ingresoak laburragoak izaten zirelako. Hiru-lau egun egiten nituen ospitalean kimioterapia sesio arinagoarekin. Etxera etortzeak ilusioa egiten du, eta denok eraman genuen hobeto. Niretzako gogorrena azken fasea izan da, tranplantearena.

♦ **Batzuek isilean eramaten dute gaixotasuna, baina zuk publiko egin zenuen, hezur-muin bateragarri bat behar zenuela esanez.**

Bai. Ni oso pertsona irekia naiz eta gauzak kontatzeak asko laguntzen dit. Nire egoerari buruz idazten hasi nintzen paperean, eta senarrari esan nion gustatuko litzaidakeela testu hura nunbaiten argitaratzea. Gure lehengusina Miren [Ota] sare sozialetan asko ibiltzen da, eta berak egin zuen publiko nire idatzia.

♦ **Espero zenuen herriak horrela erantzutea?**

Inondik inora. Ez nuen espero herriak horrela erantzungo zuela nigatik, eta oraindik ere hunkituta nago. Askok, gainera, ez ziren nire gertuko lagunak ere. Kaletik ezagutzen ninduten, eta askok ezta hori ere, baina jende pila bat animatu zen emaile egitera, eta bihotzez eskertzen diet. Animoak emateko mezu pila bat jaso nituen, jende pila bat gerturatu zitzaidan eta horrek indar handia eman zidan. Donostia Ospitaleko hematologia sailean ere esan zidaten sekulako lana eman niela! Elgoibarko ambulatorioan ere unitate berezi bat zabaldu behar izan zuten hemen bueltako jende guztiari erantzuteko. Oso hunkigarria izan zen. Askotan esaten dugu gizarte pasibo batean bizi garela, baina jendeak erakutsi du beharra dagoenean erantzuten duela.

♦ **Nola eraman zenuen hezur-muin bateragarri baten zain egotea?**

Ondo eraman nuen, ez nengoelako horren zain. Banekien aurretik bi fase gogor nituela, eta egunerokoan pentsatzen nuen. Gainera esan zidaten hezur-muin bateragarria aurkitzeko portzentajea oso altua zela, eta ia beti agertzen zela emaile bateragarri-

ren bat. Emaile guztiak mundu mailako sare batean sartzen dira, eta hor jende pila bat dago. Alde horretatik baikor nengoen, eta pentsatzen nuen agertuko zela niretzako emailearen bat. Bigarren fasean nengoela esan zidaten bazeudela nirekin bateragarriak ziren bi emaile. Bestela, azken aukera gurasoak izaten dira. Gurasoen hezur-muina %50ean da bateragarria seme-alabenarekin. Onena da 100%ean bateragarria den emaile aurkitzea, baina hori oso zaila izaten da. Nirea %95ean zen bateragarria.

♦ **Hirugarren fasera iritsi zinen, beraz. Transplantearen uea.**

Bai, gogorra izan zen. Transplantea egin aurretik radioterapia sesio gogor bat egin behar izan nuen, eta fisikoki kalte handiak eragin zizkidan. Radioterapia lokalizatua denean ez da horren bortitza izaten, baina nire kasuan sistema immunologiko guztia tratatu behar zidaten, izpiak gorputz osora botatzen zizkidaten, eta oso mingarria izan zen. Gero transplantea bera odol transfusio bat modukoa da.

♦ **Ez dute esaten zein den emaile. Gustatuko litzazuke eza-gutzea?**

Bai, nahiko nioke pertsonalki eskerrak eman, baina protokoloa hori da, eta ez diot buelta gehiegirik ematen. Badakit 1980an jaiotako mutil bat dela. Hasieran esan zidaten polakoa zela, baina informean alemaniarra dela jartzen du, beraz, ez dakit.

♦ **Zer moduz zaude orain?**

Ondo nago, indartsu eta ilusioz beterik. Tratamenduan jarraitzen dut, oraindik kimio sesio batzuk falta zaizkit, baina momentuz egin dizkidaten proben emaitzak onak izan dira, eta horrek indar handia eman dit. Orain asko zaindu behar naiz. Elikadura zaindu behar dut, eguzkirik ez zait komeni... Lagunen eta etxekoekin babesa oso garrantzitsua izan da guzti honetan. Ospitalean egonaldi luzeak egin ditudanean amaginarreba joaten zen gure etxera eta alde horretatik oso lasai nengoen, banekielako umea ondo zainduta zegoela. Umeak badaki gaixorik nagoela, baina egoerara moldatzeko sekulako erraztasuna dute umeek, eta ondo darama. Etxekoek, azken batean, nire arabera bizi dute hau. Ni ondo ikusten banaute, beraiek ere hobeto daude, eta horretatik ere gogor egon behar naiz. Lehenengo nigatik, jakina, baina beraiegatik ere bai. Pisua berreskuratzen hasi naiz, eta ile pixkat ere badaukat. Hasieratik esan zidaten ilea galduko nuela, baina ez nion batere garrantzirik eman horri. Ilea inoiz hazten ez bazait ere ez zait inporta, sendatzen banaiz. Batzuk oso gaizki eramaten dute ilearen kontua, eta pelukak erabiltzen dituzte, baina nik zapiak eta txapelak erabiltzen ditut. Oso politak daude, eta ni horrela eroso nago. Hasierako kolpe hura gogorra izan zen, baina orain hasi naiz tunelaren amaieran argia ikusten. Eskerrak eman nahi dizkiet etxeko guztiei, Elgoibarko eta Debako bizilagunei eta odol eta hezur-muin emaileei ere bai. Odola guretzat ura bezain garrantzitsua da. Emaileen garrantzia nabarmendu nahiko nuke, organo eta odola emateak bizitza asko salbatzen dituelako.

“Tratamenduan jarraitzen dut, baina ondo nago. Indartsu eta ilusioz beterik”

► Kirol festa kalean

Europako Kirolaren Herria da aurten Elgoibar, eta hori ospatzeko, kalera atera zuten kirola zapatuan. Udal kirol Patronatuak herriko elkarte eta klubekin antolatu zuen eguna, eta kirolaren festa izan zen. Herriko txokoetan kirol desberdinak praktikatzeko aukera izan zuten herritarrek, Maalatik Kalegoen plazara bitartean. Kalebarren plazan herri kirolak izan ziren protagonista, eta ikusmin handia piztu zuen, bereziki, Alex Txikon mendizalearen eta Ernesto Ezpeleta *Bihurriren* arteko desafioak. Eguerdian krosa egin zuten herriko kaleetan, Europako Kirol Herriaren ikurra bihurtu den banderarekin. Elgoibar eredu da kirolean, eta horregatik eskuratu du aurten sari hori. Datu batzuk aipatze aldera, 4.024 bazkide ditu patronatuak. 23 ikastaro desberdin eskaintzen ditu hilero, eta 1.123 lagun aritzen dira ikastaro horietan. 19 kirol elkarte daude Elgoibarren, eta guztira 1.393 federatu. Argazki gehiago eta bidea ikusteko: barren.eus





► ONINTZA OSTOLAZA

SEBAS ETXANIZ PRESOAREN ABOKATUA

Sebas Etxaniz presoaren egoera salatzen elkarretaratzen deitu du Sarek biharko (Kalegoen plazan, 13:00etan). Arkaitz Estiballes eta Uxue Alberdi bertsolariak gonbidatu dituzte ekitaldirako eta bukaeran mokadua ere izango dela aurreratu dute.

- AINARA ARGOITIA -



“Ez gara Sebas Etxanizentzako mesederik eskatzen ari, legea betetzea baizik”

◆ Zerk egiten du berezi Sebas Etxanizen kasua?

Adinak bereziki, momentu honetan preso politikoen artean zaharrena delako [75 urte ditu]. Momentuan, 70 urtez gorako bi bakarrik daude preso: Sebas eta Joseba Arregi oñatiarra. Adinak egiten du berezi, berez Zigor Kodean eta baita Espetxe Araudian ere nolabaiteko tratamendu berezia ematen zaielako 70 urtetik gorako presoek. Batetik, baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea izango dute 70 urtez gorakoek, eta bestetik, Zigor Kodearen azken erreformako artikulua berri baten arabera, 70 urtetik gorakoei automatikoki hirugarren gradua eman dakieke, gizatasun arrazoiengatik.

◆ Zein egoeratan dago eta zer da eskatzen duzuen?

2014ko azarotik bigarren graduan dago Etxaniz (presoen %84 lehenengo graduan daude), eta artikulua berri hori aplikatuta, zuzenean hirugarren gradua lortzeko baldintza guztiak betetzen dituela uste dugu, baina hirugarren gradu hori eman ezean, gutxienez, irteera-baimenak eskuratu beharko lituzke. Baimenak lortzeko hiru baldintza bete behar dira. Bigarren graduan egotea eta zigorraren laurden bat beteta izatea dira bete beharreko bi baldintza objektiboak, eta Etxaniz bigarren graduan dago 2014az geroztik eta 2008an bete zuen zigorraren laurdena. Horrez gain, espetxe teknikoek baloratu behar dute presoak jarrera egokia duen. Hori baldintza subjektiboagoa da, jakina, baina Sebasek hori ere betetzen du. Baldintzak betetzen dituenek, baimenak eskatu eta eskatu ari gara, baina sistematikoki ukatzen dizkigute. Hamabi aldiz eskatu ditugu baimenak eta beste horrenbeste aldiz errekurritu, aldi guztietan ezetza eman digutela [Bigarren graduan dagoen presoak urtean 36 baimen eska ditzake gehienez]. Hirugarren gradua ere hiru aldiz eskatu dugu. Sebasek sei hilabetero izaten du graduaren errebisioa, eta horietan, beti hirugarren graduan jarzea eskatzen dugu, baina beti ukatu izan digute.

◆ Zertan oinarritzen dira ezetza emateko?

80ko hamarkadan egindako delituen larritasunean. Guk beti defendatzen dugu hori ezin dela erabili delituak egin zituenetik ia 40 urtera baimen eskaera bat ukatzeko. Bera betetzen ari da jarri zioten zigorra, eta ezin dena onartu da legez dagozkion onurak

ukatzea. Zoritxarrez delituak larriak izan ziren, eta hor ezin da atzera egin. Hori beti eramango du bere historialean, baina baimenak eta hirugarren gradua eskatzeko, legedia arruntean, hau da beste preso guztiei aplikatzen zaien horretan, espetxean jarrera egokia izatea eskatzen da, eta hori zalantzarik gabe, betetzen du. Ez gara Sebasentzako mesederik eskatzen ari, legea betetzea baizik.

◆ Noiz arteko zigorra ezarri zioten?

Zigor kode zaharraren arabera epaitu zuten eta 30 urteko zigorra ezarri zioten, hildakoak izan ziren ekintzetan parte hartu izana leporatuta. Ekintza horiek 80ko hamarkadan izan ziren, eta horregatik dauka Zigor Kode zaharra aplikatuta. Orain, redentzio arruntak eta ezohikoak jasotzen ari da, kartzelan duen jarreragatik eta kartzelan betetzen duen lan onagatik. Eta hor kontraesana dago. Redentzio ezohikoak jasotzen ari da, baina gero baimen eskaera guztiak ukatzen dizkiote, bai eta hirugarren gradua ere.

◆ Zertan ari da kartzelan? Nola dago?

Sukaldari laguntzailea da 2014az geroztik, baina horrez gain, moduluak garbitzen ere aritzen da. Bera lasai dago, bada-kielako erabaki hauek erabaki politikoak direla. Irteera-data 2024an du berez, baina data zehatzik ezin dizut eman, kartzelaldia laburtzen ari zaielako redentzioekin. Asturiasen dago preso, eta hori ere salatzen da. Andaluzian baino hobeto dago Asturiasen, etxeoengandik gertuago, baina ez dago arrazoirik Sebas Euskal Herriko kartzela batean ez egoteko.

◆ Aipatu duzu baldintzapeko askatasuna lortzea ere izango lukeela adinagatik. Zergatik ez dago baldintzapean aske?

Kontua da baldintzapeko askatasuna lortzeko hirugarren graduan egon behar dela edo zigorraren hiru-laurdenak beteta eduki [Etxanizek uztailaren 15ean beteko du zigorraren hiru-laurdena]. Horregatik iruditzen zaigu bere kasuan logikoena hirugarren gradu hori lortzea litzatekeela orain, bere egoera nabarmen hobetuko litzatekeelako, egunez kanpora irteteko aukera izango lukeelako, gaez kartzelara itzuli beharko zuen arren. Eta behin hirugarren gradua izanda, ondorengo urratsa baldintzapeko askatasuna lortzea izango litzateke, baldintza guztiak beteko litzatekeelako horretarako.

'Campeones' filmarekin hasiko da Aire Libreko Zinemaldia uztailaren 5ean

Urtero legez, Herriko Antzokiko zinemari hartuko dio lekukoa Aire Libreko Zinemak. Gaur zortzi hasiko dira Kalegoen plazako emanaldiak, eta uztailaren 28ra bitartean hamar film emango dituzte. Aurten, duela hilabete batzuk hil zen Iñaki Agirreri eskainiko diote film bat, bera izan zelako aire libreko zinemaldiaren sortzaileetako bat. *Campeones* izango da aurtengo lehenengo filma, Javier Fesser zuzendariaren komedia dramatikoa. Marco izeneko saskibaloia entrenatzaileak talde oso berezia izango du bere arduruan, jokalariek guztiek gutxitasun fisikoren bat daukatelako. Talde horrekin lehiatzen ikasi beharko du, eguneroko zailtasunak gaindituz. Filmak 22:30ean hasiko dira:



- ◆ *Campeones* (Uztailak 5)
- ◆ *Mamma mía* (Uztailak 6)
- ◆ *Margolaria* (Uztailak 12, Iñaki Agirreren omenez)
- ◆ *El mejor verano de mi vida* (Uztailak 13)
- ◆ *Ocean's 8* (Uztailak 20)
- ◆ *Thi Mai: rumbo a Vietnam* (Uztailak 21)
- ◆ *Bypass* (Uztailak 25. Euskaraz)
- ◆ *Sherlock gnomes* (Uztailak 26)
- ◆ *Los increíbles 2* (Uztailak 27)
- ◆ *Jurassic world, el reino caído* (Uztailak 28)

Errotuloak euskaraz jartzeko diru-laguntzak

Establezimendua identifikatzeko errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo elebitan jartzen duenari kostearen % 50eko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Udalak, sede bakoitzerako gehienezko kopurua 300 eurokoa izanik. Horretarako, beharrezkoa izango da euskaraz ondo idatzita egotea, eta Euskara Zerbitzuak ziurtatu beharko du hori. Errotuluen kasuan, izena edo izen-abizenak soilik agertzen badira, Udalak ez du diru-laguntzarik emango.

Interesdunek dagoeneko eskabideak aurkez ditzakete Herriarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behea), edo elgoibar.eus webgunean, herriarren atalean. Informazio gehiagorako Udalaren Euskara Zerbitzura deitu (943 744 366) edo mezu bat bidali euskara@elgoibar.eus helbidera.

Hainbat ekimen egin dituzte Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunaren harira

Gaur, ekainak 28, Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, hainbat ekimen egin dituzte aste honetan. Elgoibarko Udalak, Batxilergoko Hezkidetzat taldearekin, Emakumeen Kontseiluarekin, Elgoibarko Izarrekarekin eta Naizen elkartearekin elkarlanean. Eguaztenean, esaterako, ortzadarra margotu zuten Maalako parkeko txoko batean, Elgoibar ere LGBTI kolektiboarekin lagunkoia dela erakusteko.

Gaur, bestalde, *Maitasun Askea* izeneko abestiarekin osatutako Kiribilen bideoa aurkeztu dute www.barren.eus atarian. Aurreko hileko Kiribilen saioan maitasun askearen eta aniztasunaren gaiak landu zituzten familian, eta saio hartan hartutako irudiekin sortu dute bideoa. Horrez gain, gaur eguerdian, elkarretaratzea egin dute Kalegoen plazan, eta manifestua irakurri dute Batxilergoko Hezkidetzat Taldeko kideek. Astelehenerako, bestalde, Sexualitate anitzak izeneko tailerra emango dute Emakumeentzako Jabetze Eskolaren barruan. 18:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



▶ INA IRIONDO

MARACA DIABLO PROIEKTUAREN SORTZAILEA

Maraca Diablo proiektuarekin bueltan da Ina Iriondo mendarorrra. 'El regreso del niño indio' diskoa kaleratu zuen joan zen ostiralean, Maraca Diablaren bigarren lana. Aspaldian buruan bueltaka zerabilen proiektua gauzatu du, eta "oso gustura" agertu da egindako lanarekin.

- AINARA ARGOITIA -

"Azkeneko urteotako sentsazioak batu ditut disko berri honetan"

◆ Zazpi urte geroago, bueltan zatoz. Zergatik orain?

Bai. Orain zazpi urte eman nuen argitara *Hail Zigurat*, Maraca Diablaren lehenengo diskoa, gure Eneko jaio baino sei hila-bete lehenago. Garai hartan baneuzkan beste kantu batzuk hasita eta banuen haiek hurrengo urtean ateratzeko asmoa ere, baina denborak ez zidan ematen. Guraso izan berri ginen, eta hasita geunden, gainera, Munletekin berriro jotzen eta grabatzen, eta erabaki nuen *standby* uztea proiektu hura. Eginda neuzkan kantu batzuk, esan bezala, eta berriak ere sortu nituen: *Intxaurbakoitza* eta *Hiru Ahate*. Bi kantu horiek lehendik nituenei batuta, pentsatzen nuen baneukala beste disko baterako materiala eskuan, baina bat-batean, asko uste gabe, aita hil zitzaigun eta horrek ordura artekoaz oso bestelako sentsazioa sortu zuen nigan, eta beste kolore bateko musika egiten hasi nintzen. Tarte horretan, Munletek bizitza hartu zuen berriro, gure lagun Cebrirekin batera, eta 2016an diskoa kaleratu eta bira txiki bat hastea pentsatu genuen. Hurrengo urtean Maddi jaio zen, gure alaba, eta erabaki nuen unea zela berriro Maraca Diablaren proiektuari heltzeko. Orain apur bat libreago nabilela, kantuei azkeneko ukitu batzuk egin eta azkeneko urteotako sentsazioak batu ditut.

◆ 'El regreso del niño indio' jarri diozu izenburua. Zergatik izenburu hori?

Izenburua erderaz du diskoak, kantu gehienak euskaraz diren arren. Izenburu indartsua iruditzen zitzaidan, eta bere horretan uztea erabaki nuen. Nik egokiena iruditu zaidan hizkuntzan sortu dut beti musika, eta kasu honetan oso kantu pertsonalak zirenez, euskaraz sortu ditut. Bestetik, esango nuke naif influentziadun kantu



Arg.: Juxe Areta Goñi

asko daudela; nolabait haurtzarora buelta bat da hau, baina esango nuke ezinbestez izan dela hori, hala behar zuelako etxean bi ume txiki izanda. Umeekin batera berriz ari naiz bizitzen haurtzaroko sentsazio haiek guztiak, eta hori eta bizitza osoan ikasitakoa eraman dut orain musikara eta paperera.

◆ Laguntzarik izan duzu disko honetarako?

Gehiena nik egin dut, baina izan ditut laguntzaile batzuk, bai. Anak, Munleteko Anita Lady Fingersek, egin dizkit pare bat kanturako letrak. Era berean, abestu ere egiten du beste kantu batean, eta baita theremina jo ere. Iñigo Romerak ere lagundu dit Cancer Moon-en bertsio bat egiten. Cujo, Los Clavos edo Arana taldeetan aritutakoa da Romera. Jesus Cidek, Ourensean daukadan lagunak, itzuli dit beste letra bat galegora, eta Charlee Mito artista bilbotarrak egin dizkit diskoko marrazkiak eta baita diskoarekin batera banatzen diren kromoak ere.

◆ Non eskura daiteke diskoa?

Bi bertsiotan dago diskoa: KDan, eta gero kaxa sorpresa batean non KDaz gainera kromo bilduma berezi bat eta beste gauza batzuk ere badatozen, entzumena ez dena ere gozatzeko. Diskoa entzuteko edo lortzeko aukera onena Bandcampen sartzea da: <https://maracadiablo.bandcamp.com>, baina Spotify, iTunes eta halakoetan ere topatu ahal da. Eta bestela bidali email bat maracadiablo@gmail.com helbidera, eta listo.

◆ Hasi al zara zuzenekoetan pentsatzen?

Momentuz larri nabil denboraz eta ezin dut, baina beharbada, aukera on edo apropos bat suertatuko balitzait, momentua litzateke pauso hori emateko ere.

San Pedro jaiak ospatuko dituzte asteburuan, Idotorben

Bihar, ekainak 29, San Pedro eguna izango da, eta festak ospatuko dituzte Idotorbe auzoan. Gaurtik hasita domekara bitartean hainbat ekitaldi izango dira, adin guztietako herritarrentzat. Txapligoak botako dituzte gaur arratsaldean jaien hasiera iragartzeko, eta gauean afaria egingo dute. Bihar izango da jaietako egun handia, eta besteak beste, zaindariarekin prozesioa egingo dute. Domekan ere egongo da non aukeratu: Haritz Dantza Taldekoen dantzaldia eta idi probak egongo dira besteak beste. Egitarau guztia agendan duzue.



Sotano 21 taldearen kontzertua Malapen

Sotano 21 talde elgoibartarrak kontzertua emango du uztailaren 5ean, Malape tabernan. Maria Azpeleta (gitarra eta pianoa), Jon Ander Pascual (gitarra eta ahotsa), Vicente Santos (baxua), Alberto Verdasco (ahotsa) eta Diavid Rodriguez (soinu teknikaria) dira taldekideak. Orain dela hiru bat urte sortu zuten taldea, eta Taupadaren omenaldian igo ziren estreinakoz oholtzara. 10-11 abesti joko dituzte Malapeko saioan, beste taldeen bertsioak gehienak.

San Joan suaren bueltan ospatu dute urteko gaurik motzena

Bazterretan sua pizteko ohitura dago San Joan bezperan, txar guztiak uxatzeko. Horren harira, Mendaron eta Elgoibarren ere piztu zituzten suak. Mendaron, Udalak, Gaztelekuak eta Ludotekak antolatu zuten jaiak, eta ehun bat lagunek hartu zuten parte ekitaldian (Bideoa ikusteko: barren.eus). Elgoibarren, Ekigain jaiak antolatu izan du Elgoibarko Iza-rrak azken urteotan udako solstizioaren egunean, baina aurten bertan behera utzi zuten ekimena, eguraldiagatik. Elgoibarren, IMHko bidegurutzean eta Santa Ana kaleko apartamentuetan piztu zituzten suak.



Arg: Asier Iturriagaetxebarria



268 ume eta nerabe hasi dira udako kirol campusean

Kirol campusa antolatu du aurten ere Elgoibarko Kirol Patronatuak udako oporraldirako. Astelehenean hasi ziren eta uztailaren 19ra bitartean era guztietako kirolak praktikatu dituzte herriko hainbat kirol gunetan. Guztira 268 ume eta nerabe ari dira parte hartzen (251 izan ziren iaz), hamabost begiralderen gidaritzapean. Campusaren barruan, Goi Mailako Kirol Udalekuetan parte hartzen dihardute, 2004-2007 urteen bitartean jaiotako 32 gaztek.



June Loidi 'All Star Team' osatzeko hautagaien artean

Espainiako Eskubaloi Federazioak Iberdrola Ligan jokatzeko duten jokalariek onekin osatuko du All Star Team edo izarren taldea. Hautagaien zerrenda zabaldu dute, eta arlo bakoitzean jokalariek gogokoenaren alde bozkatzeko aukera izango da sare sozialen bidez. June Loidi elgoibartarra bi sari lortzeko hautagaietako bat da, defentsa onenaren eta jokalariek gazte onenaren sarietarako. Iberdrola Ligako klub bakoitzak hiru izen eman ditu, arloz arlo, eta federazioak horien alde botoa emateko hainbat bide ireki ditu, uztailaren 1era bitartean: Federazioko aplikazioak botoen %60 suposatuko dute eta Twitter, Facebook, Instagram eta YouTube plataformek, aldiz, %10a. Botoa emateko www.rfeb.com helbidean sartu behar da.

Zartako arkularientzat Euskadiko txapelketako lehen hiru postuak, basoko 3D modalitatean

Euskadiko Basoko Arku Tiraketa Txapelketa jokatu zuten ekainaren 23an, Amurion, eta Zartako arkulariek emaitza apartak lortu zituzten arku tradizionalen kategorian, lehen hiru postuak eskuratu baitzituzten. Javier Varonak, egungo txapeldunak, iaz Ordizian lortutako tituluariki eutsi zion. Hugo Sierrak, 2017ko txapeldunak, eskuratu zuen bigarren postua, eta Rafael Segik, hirugarrena. Bolumetrikoa deitzen dieten poliespanezko animalia batzuei egiten dieten tiro arku tiro modalitate honetan.



Javier Ezenarro oroitzarrea jokatu dute Mendaron, bihar

Jabier Ezenarro Oroitzarrea txirrindularitza lasterketa jokatu dute bihar (ekainak 29) Mendaron. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du, Udalaren babesarekin, eta aurten, juniorren Gipuzkoako Txapelketako proba izango da. Horrek eragin du lasterketa ohi baino goizago jokatzea eta ibilbidean hainbat aldaketa egitea. 85 kilometroko ibilbidea osatu beharko du tropelak [Mendaro-Arrasate-Mendaro-Sasiola-Lastur-Itzar-Deba-Mendaro], Mendaroko Herriko Enparantzatik abiatuta, 16:00etan.



Mateos-Txurruka txapelkun emakumezkoetan, eta Portu-Lizarralde, gizonezkoetan

Orainak pala txapelketak baditu irabazleak: ekainaren 21ean jokatu zituzten finalak eta Yoli Mateosek eta Olatz Txurrukak osatutako bikoteak jantzi zuen txapela emakumezkoetan, eta Markel Portu eta Gorka Lizarralde mendaroarrak gailendu ziren gizonezkoetan. Mateosek eta Txurrukak 22-16 irabazi zieten Lidia Suarezek eta Eneritz Arrillagak osatutako bikoteari. Lizarraldek eta Portuk, berriz, 22-14 irabazi zieten Ivet Astiazaran eta Igor Albizuri azpeitiarrei. Urtero bezala, ikusmin handia sortu zuten pala txapelketako finalek herritarren artean, eta Kalegoen plaza jendez beteta egon zen bi partidetan. Txapelketan jende askok hartu du parte aurten ere: 13 bikote emakumezkoetan eta 21, gizonezkoetan.



Lau xake txapelketa jokatu dituzte Elgoibarren

Eskuak bete lan aritu dira azken astean Elgoibar Xake Taldeko kideak. Hasteko, Udaberriko Xake Txapelketako bosgarren ekitaldiko finalak jokatu zituzten, ekainaren 20an, Iriondo tabernan. Markel Kerexetak irabazi zion final nagusia Jon Esnaolari; eta, Kopako finalean Iker Ruizek irabazi zion Eneko Alberdiri. Zapatu goizean, partida azkarren taldekako Euskal Ligako jardunaldia jokatu zuten Elgoibarren, eta Gasteizko Martintxo taldeak irabazi zuen. Zapatu arratsaldean jokatu zuten Olan Arkitektura xake txapelketa azkarraren estreinako edizioa. Kultur Etxeko sotoan aritu ziren lehian 47 xakelari eta Xabier Aranzabal zumaiarra

gailendu zen. Iñaki Garcia bilbotarra sailkatu zen bigarren postuan. Mikel Leon izan zen lehen elgoibartarra, 14. postuan sailkatuta. Urdaiazpiko bat zozkatu zuten parte hartzaileen artean eta txapelketako irabazleari, Aranzabali, egokitu zitzaion. Sari bikoitza. Azkenik, domekan, Elgoibar Xake Festa egin zuten Kultur Etxeko sotoan. Guztira 18 xakelari gaztek hartu zuten parte.

Nahaste Borraste, gaur

Kimetz elkarteak antolatuta 35. nahaste Borraste proba herrikoia jokatuko dute gaur, 19:00etatik aurrera. Kalegoen plazan hasi eta amaituko da "triatloi" berezia. Partaideek zazpi kilometro egingo dituzte bizikletaz, zakua bizkarrean eraman beharko dute gero San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena eta antxitxikako probarekin amaituko dute proba.



Daniel Arenas munduko txapelkun bikejoringean, beteranoetan

Daniel Arenas Fidalgo musher elgoibartarra eta *Sua* txakurrak artzai txakur belgiarrentzako munduko txapelketan hartu zuten parte, Txekiar Errepublikan. Bikejoring modalitatean lehiatu ziren, eta beteranoen mailan gailentzeaz gainera, sailkapen nagusiko bigarren postua lortu zuten. Bikejoring espezialitateak BTT lasterketa eta txakurrak uztartzen ditu, hau da, txakurrak bizikletara lotuta daude homologatutako tira elastiko batekin, txakurrak minik har ez dezan. "2020. urtean titulua defendatu beharko dugu. Ea zortetik daukagun eta ea babesleren batek laguntza ekonomikoa ematen digun aurrera jarraitzeko", adierazi du Arenasek.



LANA.....

Eskaerak

Arratsalde, orduka, lan egingo nuke. Umeak eta adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat.
☎ 654 994 405

Lan bila nabil. Esperientzia daukat umeak eta adinekoak zaintzen.
☎ 655 366 775

Lan bila nabil. Edozein lan egiteko prest nago.
☎ 631 656 447

Lan bila nabil. Asteburuetan, orduka edo gauean ere lan egiteko prest nago. Etxean zein ospitalean. Esperientzia handia pertsona nagusiak eta umeak zaintzen baita etxeko garbiketa lanetan ere.
☎ 632 893 515

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta erreferentzia onak.
☎ 643 323 088

Adinekoak zaintzeko eta nekazaritza lanak egiteko prest nago.
☎ 612 235 371

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 632 229 972

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauetz eta asteburuetan ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
☎ 631 349 494

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 631 870 590

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 398 855

Adinekoak edo gaixoak zainduko nituzke, egunean bi orduz. Euskalduna naiz.
☎ 617 571 210

Etxeak garbitzeko prest nago. Arratsaldez. Esperientzia daukat.
☎ 637 102 725

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean.
☎ 611 306 391

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketa lanetarako ere prest nago. Titulua eta esperientzia ditut.
☎ 943 748 899/ 685 724 861

Bikote arduratsua lanerako prest. Base-riko lanetan, edo adinekoak zein umeak zaintzen egingo genuke lan.
☎ 602 398 328

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 658 464 396

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Paperak legez ditut.
☎ 632 992 730

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, gauetz, asteburuetan. Ospitalean ere bai. Esperientzia daukat.
☎ 631 518 917

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketa lanetarako ere prest nago.
☎ 632 796 081

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke. Ospitalean gauak egiteko eta etxeko garbiketarako egiteko ere prest nago.
☎ 631 822 545

Edozein lan egiteko prest nago. Adinekoak zaindu, eraikuntza lanak...
☎ 631 736 770

Edozein lan egiteko prest nago. Adinekoak zaindu, eraikuntza lanak...
☎ 632 786 847

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 688 735 551

Adinekoak eta umeak zaintzeko, erropak lisatzeko eta sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 602 047 812

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke.
☎ 604 300 582

Eskaintzak

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Interesatuak curriculuma bidali mesedez: buruagaltzen@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Etxe txiki bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 656 734 367

GARAJEAK.....

Garaje itxia salgai, Iñigez Karkizao kalean. 20m². Gabilondo inbiliarian eskuratu daiteke informazio gehiago.
☎ 943 744 467

KINTOAK.....

1964. urtean jaiotako bazkaria bihar, ekainak 29, izango da, honako programekin: 12:30ean elkarituko dira udal-letzeko arkupeetan, 12:45ean taldeko argazkia aterako dute; 13:00etan luntxa Tantan; 14:45ean bazkaria, dantza, eta iluntzean, afaria.

1954koen kinto ospakizuna, uztailearen 6an. 13:00etan luntxa, Usua taberna; 14:00etan argazkia; 14:30ean bazkaria eta musika, Sigman. 60 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan, ekainaren 21erako: ES62 3035 0007 29 0071 137526. Animatu!

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoalduko Enplegu-Administrazioaren Lanerako Karguak

ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahiko nuke gai-ordenean jasotako gai baten inguruan zerbait adostu dezakegun bileran, galdera-erantzunen tartean.

Arauk dio ezin dela gai-ordenean jaso ez den gai baten inguruan ezer erabaki, errazegia litzatekeelako bestela jabekide batzuen borondatea ez jasotzea zehaztu ez diren gaien inguruan momentuan erabaki behar izatean.


Galdera-erantzunen tartean ezin da gai-ordenean zehaztu bako gaien inguruan ezer adostu, jabekide guztiek duten informazio eskubidea urratzea litzatekeelako hori. Adostasunik lortu ez den gaien inguruko ekarpenak egiteko edo komunitateko gaien inguruan galderak egiteko tartea da berez hori. Jabekide guztiek iritzia eman eta botoa eman ahal izatea babestu nahi da landu beharreko gai guztiak gai-ordenean jaso behar izatea derrigortuta. Izan ere, jabekideek gai-ordenean zehaztutako gaien arabera erabaki dezake batzarrera joan edo ez.

ONDORIOA: Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina-tzat ezartzen du jabeen batzarretan hartzen diren erabakiek balioa izan dezaten gai-ordenean zehaztu behar direla gaiak, jabe guztiei iritsi dakien haien berri. Hala ere, doktrina eta jurisprudentzia gehientsuenek uste dute, eskaeren eta galderen epigrafe pean hartzen diren erabakiak baliozkotu egin daitezkeela, legezko epean inpugnatu ezean.





Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Aiur**, uztailearen 2an 9 urte egingo dituzulako. Familiako guzti-guztiok asko maite zaitugu.



Zorionak, **Kai**, igandean, ekainaren 30ean, 2 urte egingo dituzulako. Etkeoen, eta bereziki, ltxasoren partez.



Zorionak, **Eneko**, asteartean 4 urte bete zenituelako. Muxuak, familiakoen partez.



Zorionak, **Telmo**, domekan 5 urte potolo beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Luke-nen partez.



Zorionak, **Izeia**, astelehenean 3 urte egingo dituzulako. Muxuak, etkeoen partez.



Zorionak, **Nora**! Domekan, 5 urtel Zure familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

IKASBAI AKADEMIA
IKASGO ACADEMY
Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiae@elgoibar@gmail.com

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK
2019-2020
667 261 248
(Leire)

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK
- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leopindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

ARAMBURU BIZKIDENA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa:
943 742 535

Etorri eta ikus itzazu!

Dendako hainbat bitxitan %50 deskontua.

Ekaina eta Uztaile bitarteko sustapena

RPS 183112

40. urteurrena
UZURI optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

► **Uztaileko eskaintza:**

Bainurako tapoia 2x1



► **Uztaileko zozketa:**

- ✓ Bi instax kamera dendan eginiko erosketen artean
- ✓ Bi instax kamera, uztailean dendan erositako eguzkitako betaurrekoekin sare sozialetara argazkiak igotzen dituztenen artean.



28 BARIXAKUA

12:00 Elkarretaratzea. Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna. Hezkidetzeta taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

19:00 Elgoibar BHI Institutuko ikasleen diploma banaketa. Herriko Antzokian.

19:00 Nahaste Borraste. Kimetz elkarrekin antolatuta, Kalegoen plazan hasita.

29 ZAPATUA

13:00 Sebas Etxanizen aldeko agerraldia. Arkaitz Estiballes eta Uxue Alberdi bertsolariek hartuko dute parte. Kalegoen plazan.

16:00 Jabier Ezenarro Oroitzarrea txirrindularitza lasterketa, Mendaron. Irteera eta helmuga: Herriko Enparantzan. Junior mailako Gipuzkoako Txapelketa da. Antolatzailerak: Mendaroko Txirrindulari Elkarteak.

18:30 Teo Martinezen argazki erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Txosna zabaltzea. Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak kudeatuko du.

12:00 Hegazti tailerra, haur eta gazteentzat, Kalebarren plazan.

Egurditik arratsaldera Ganadu erakusketa, Trenbide kalean.

1 ASTELEHENA

18:00 Sexualitate anitzak. Emakumeentzako Jabetze Eskola. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Pentsiodunen bilera irekia. Herriko Antzokian.

5 BARIXAKUA

20:30 Kontzertua. Kokein. Usuko parkean.

20:30 Kontzertua. Sótano 21. Malape tabernan.

Zinea (Kalegoen plazan)



'Campeones'
5 barixakua: 22:30

LAGUNAK
colchonera textil hogar


**BEHAR DUZUN HORI
NEURRIRA JOSIKO DIZUGU!**

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina, panel japoniarrak...
- Tapizatuak egiten ditugu, sofa, eserleku eta oheburutan.

Interesik gabeko finantziazioa! 24 hilabetera arte.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

*gutxienezko finantziazioa 300€



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
28 BARIXAKUA	29 ZAPATUA	30 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea

*** Fernandez:**
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

IDOTORBEKO JAIAK Ekainak 28, 29 eta 30

28 BARIXAKUA

19:00 Jaien hasiera. Kanpai jotzea eta txapliguak.

21:00 Afaria eta mus txapelketa.

29 ZAPATUA

11:00 Prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren, salda eta txorizoa, Armueta harategiak eskainita.

Egun guztian zehar, Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria, San Pedro jate-txean.

16:30 Umeentzako jolasak.

17:30 Rusoren zezen txikiak.

21:00 Lagun arteko afaria, San Pedro jate-txean.

23:00 Erromeria, Ostolaza eta Narbaiza trikitilariekin.

01:30 Parrillada, doan, Sahatzu harategiak eskainita.

30 DOMEKA

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, salda eta txorizoa, Goikoetxe harategiak eskainita.

12:00 Dantzak, Haritz EDT taldearekin eta auzoko umeekin.

13:00 Bolo txapelketa.

17:00 Idi probak. San Pedro saria. Soarte, Izeta eta Isidro erretegiak hartuko dute parte.

Segidan, karretillaren zozketa.

Egun guztian zehar, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.



III. URTEURRENA

Pedro Aguinaco Isusi

2016ko uztailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.



Irunasoren itzala



1964an Azkoitiko frontoian bi aiastrarrek elkarren kontra jokatu zuten desafio handiaren albistea ekarri dugu orrialde honetara, Jose Antonio Ansola Irunasoren eta Antonio Egaña Bioinen arteko harri-jasotze jokoa buruzkoa.

- AINARA ARGOITIA -

Irunaso baserriko Jose Antonio Ansolak eta Bioin baserriko Antonio Egañak 1964ko otsailaren 9an Azkoitiko frontoian desafia jokatu zuten egunera eraman gaitu artxiboko argazki zahar batek. 100 kiloko harri zilindrikoarekin hamar minutuko hiru txanda jokatu zituzten, eta Irunasok irabazi zuen trabesa. 25.000 pezeta eta txarteldegian batutako dirua jaso zuen, "dirutza ordu-rako", eta plaza hark plaza gehiago egiteko bidea zabaltu zion. Derrigorrezko soldaduska egitera hamasei hilabeterako Afrikara

joan aurretxoan jokatu zuen apustua Irunasok, 22 urte bete eta bi egunera. Ez du ahazteko ordukoa. "Frontoia bete egin zen, eta orduko egunkarietan-eta agertu zen albistea. 2.000 bat ikusle batu ziren plazan, eta zozketan neuri egokitu zitzaidan aurretik jokatzeko". Ez zuen berak harri jasotzerako aparteko zaletasunik; Gehiago bizi zuen pilota, baina auzokoek xaxatuta eman zuen plazarako pausoa. "Beti ibiltzen ginen norgehiagoka gu, auzook. Errepideaz ezkerralderakoak ginen gu, eta eskuinalderakoak Bioindarrak. Jaietan lasterketa antolatu zuten urte batean auzoan eta neu izan nintzen gehiago. Hori ikusita, apustua egin zidaten, baietz eurek gehiago egin harri jasotzen. Anaia zaharragoa ibilia zuen horretan Antoniok, eta halaxe berotu ginen, gaztea berotzeko ez delako asko behar izaten. Itziarko Santuarango semeak, Sagarraga baserrian errentero zegoenak, eman zidan ilusio pixkat eta haretzek inguratu zidan harria ere".

Lehenengo joko haren atzetik beste bat etorri zen, soldaduskatik bueltan. Baserriko eta basoko lanek uzten ziotenean entrentatzen zen Ansola, Loiolako Agarrek lagunduta. "Oraingo konturik ez zegoen, baina, orduan. Gimnasia pixkat egiten genuen, baina orduan ez zegoen medikurik eta halakorik". Usategieta oiartzuarraren kontrakoa izan zuen bigarren jokoa, Azpeitiko zezen-plazan. 25 urte zituen berak. Azkoitin erabili zutena baino kilo bi arinagoa zen harriarekin hiru hamarrek txanda osatu zituzten, eta han ere bera gailendu zen. "Ondo xamar nenbilen ordurako, harri txikietan onentxoan artean, baina etxean lan asko geneukan, gurasoak edadean aurrera zihoazen... eta laga nion". Ordurako Elgoibarren hasia zen Juanito Barrenetxea *Altzate* ere plazak egiten. Ansolak berak ere jarraitu zuen plazara irteten, harria jasotzera ez bazen, aizkoran egitera. Erakustaldi batzuk egin zituen Arronan, Deban, Eibarren, Aginagan, Barinagan eta plaza txiki gehiagotan ere. Elgoibarren ere, birritan jardun zen sanbartolomeetan. Ordukoa da bigarren argazkia ere.





I. URTEURRENA
Iñaki Santos Arguinchona
 1947-11-25 / 2018-06-29
*Esan zenuena ahaztuko du jendeak,
 egin zenuena ahaztuko du,
 baina sekula ez dute ahaztuko nola sentiarazi zenituen.*



Guadalupe Maguregui Arrieta
 2019ko ekainaren 22an hil zen, 80 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
 lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
 Zure indarrak emango digu benetako bizia,
 egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.*


Etxeoak





Eskertzak eta urteurrenak
943 744 112



I. URTEURRENA
Jose Mari Armendia Izagirre



2018ko ekainaren 21ean hil zen, 89 urte zituela.
 Haren oroimenez, meza izango da,
 zapatuan, ekainaren 29an, 19:00etan,
 Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
 Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Gremioen gida

ARROZTEGIAK

Biena, S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

Aroztegia · Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA

Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Oid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Aroztegiak

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

Izurrien kontrako
tratamenduak

Leihoak

Izurrien kontrako
tratamenduak

Leihoak

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@elgoibar.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheka
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

Pintura

Elektrizitatea

Igeltseritza

Pintura

Elektrizitatea

Igeltseritza